

7. TEKNIKAK

7.1. BEHAKETA ETA ELKARRIZKETA TEKNIKAK ETA GALDETEGIA

Ondoren, behaketa eta elkarrizketa teknikak aurkeztuko ditugu.

Batez ere, teknika bakoitzaren erabileran zentratuko gara, bakoitzaren abantailen eta mugen deskribapenean, aplikatzeko ezarri behar diren baldintzetan eta aipatuko diren teknika bakoitzak dituen helburu edo xedeetan.

ELKARRIZKETA

Asko dira elkarrizketaren definizioak.

Gu oinarrituko gara, modu honetara hasten den definizioarekin: elkarrizketek solasaldi edo elkarrekintzaren antza handia dute. Ikertzaileari eta elkarrizketatutako pertsonari denboran atzera eta aurrera egiteko aukera ematen dio elkarrizketak.

Elkarrizketek forma desberdinak izan ditzakete, gai zehatz batean edo aurrez ezarritako batetik hasiz, gaien inguruan oso irekiak izan daitezkeen haietara bitartekoak hartzen baitituzte. Ohikoena, ordea, elkarrizketa erdiegituratua da, landu nahi diren oinarritzko galdera eta gai multzo batek zuzentzen duena; hala ere, galderen idazketa zehatza eta ordena ez daude aurrez finkatuta. Elkarrizketaren prozesu ireki eta ezformal hori, ordea, solasaldi ezformal baten antzekoa da eta desberdina aldi berean.

Elkarrizketa bi pertsonen arteko solasaldi bat da, edo pertsona eta talde baten artekoa, asmo jakin batzuei jarraiki egiten dena. Elkarrizketan bakoitzak bere rola du (elkarrizketatzailea – elkarrizketatua). Beraz harreman zuzenekoak, pertsona artekoa (bi pertsona edo gehiagoren artekoa) eta asimetrikoa da (elkarrizketatzaileak aurrez ezarritako helburu jakin batzuk baititu).

Elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatutako pertsonak hitz egiten dute, solasaldi batean eta tartean sartutako galderen arteko nahasketa batean.

Elkarrizketa eta solasaldia antzekoak dira, baina desberdinak aldi berean. Alde batetik, eta elkarrizketaren funtzionamendu egoki baterako esan ohi da "elkarrizketatuak solasaldi baten antzera jaso behar du, galderaren egituraz, ordenaz edo elkarrizketatzailearen helburuetaz ohartu ez dadin".

Bestalde, baieztatzen da, elkarrizketa formalaren eta eguneroko bizitzako solasaldien arteko desberdintasuna, ondorengo gaietan dagoela.

- a) Elkarrizketan elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen parte hartzeak "ondorio jakin" desberdinak dituzte: lehenarena hitz egitea da eta bestearena, berriz, entzutea.
- b) Elkarrizketatzaileak etengabe bultzatzen du elkarrizketatua hitz egitera, kontra egin gabe.
- c) Elkarrizketatutako pertsonaren iritzirako, elkarrizketa antolatze eta eusteko arduraduna elkarrizketatzailea da.

Elkarriketaren helburua gai jakin baten inguruko informazioa jasotzea da, hala gauza objektiboen gainean (ezaugarri fisikoak, ekonomikoak, gizarte alorrekoak,...), nola gauza subjektiboen gainean (ideiak, iritziak, jarrerak, itxaropenak, asmoak,...).

Elkarriketa datuak biltzeko beste teknika batzuen osagarri gisa erabil daiteke, aurkitutako informazioaren egiazkotasuna egiaztatu nahi denean, edo/eta informazioa beste modu batera lortu ezin denean.

Elkarriketa aukera zabal bat dago baina horien artean, lau baino ez ditugu azpimarratuko:

- Solasaldi ezformalaren itxurako elkarriketa, eta bere ezaugarria da, galderak testuinguruaren arabera eta elkarrekintzaren bide arruntari jarraiki sortzea eta egitea (gaien alde aurreko hautapenik egin gabe eta galderak alde aurretik idatzi gabe).
- Gidoi batean oinarritutako elkarriketa, eta bere ezaugarria da, landu behar diren gaien gidoi bat prestatzea (eta elkarriketatzaileak, elkarriketaren zehar, galderak ordenatzeko eta egiteko daukan askatasunagatik). Elkarriketa modu hau da interesgarriena gure ikuspegitik.
- Elkarriketa estandar irekia, eta bere ezaugarria da, elkarriketatutako pertsona guztientzat berdina izango diren galdera idatzi eta ordenatuen zerrenda bati jarraitzea. Erantzuna, berriz, librea edo irekia izango da.
- Elkarriketa estandar itxia, eta bere ezaugarria da, elkarriketatutako pertsona guztientzat berdina izango diren galdera idatzi eta ordenatuen zerrenda bati jarraitzea. Erantzuna, berriz, itxia izango da.

Elkarriketaren sarrera hau amaitzeko adierazi behar da, emaitza elkarriketatzailearen eta elkarriketatuaren edo "informatzailearen" arteko harreman enpatikoaren arabera izango dela. Hau da, pertsona bat beste pertsona baten ikuspegiak, jokabideak eta sentimenduak ezagutzeko eta konprenitzeko jarreraren eta haren tokian jartzen denean sortzen den enpatia prozesu batetik hitz egin genezake. Prozesu hau, naturala, ohikoa da eguneroko solasaldi batean, eta elkarriketan bultzatu egiten da informazio garrantzitsu eta baliagarria lortzeko xedez, beti ere, ikerketaren helburuei jarraiki.

Horregatik, elkarriketak, informazioa biltzeko metodo zientifiko bat denez, pertsonen arteko komunikazioaren maila psikosozialari buruzko ezagupen teoriko eta praktikoak izatea eskatzen du. Hau da, elkarriketak egiteak, elkarriketaren prestaketa espezifiko bat eskatzen du: bai elkarriketatzailea eta elkarriketatuaren arteko konbinaketa onena hautatzea, bai elkarriketa izateko eta jasotzeko materialen hautaketa, bai elkarriketatuak izan daitezkeeneko harremanak, bai elkarriketa teknikak,...

Elkarriketa sakontasunez egitearen abantaila eta mugak.

Abantailak:

Bestelako teknika kualitatiboekin gertatzen denaren antzera, teknika honen estilo bereziki irekiak, elkarriketatuaren hitzetatik eta ikuspegietatik informazio aberatsa jasotzeko aukera ematen du.

Elkarriketatzailerari galderak eta erantzunak (bai eta aurreikusi gabeko gaien inguruan) argitzeko eta segimendua egiteko aukera ematen dio, inkesta batek ematen duen baino, elkarrekintza marko zuzenago, pertsonalizatuago, malguago eta berezkoago batean.

Baina batez ere, eta edozein azterketaren hasierako fasean gertatu ohi denez, proiektu bat ikerketaren benetako egoerara egokiturik paperean jasotzeko beharrezkoak liratekeen ikuspuntu, ikuspegi, hipotesi eta bestelako orientabideak lortzeko abantaila nabarmentzen da, bai eta bestelako tresna teknikoak prestatzeko aukera ere. Teknika honek balio du, batez ere, lehen hurbilpen bat edo errekonozimenduko lanak egiteko, beste teknikek, hala kualitatiboak nola kuantitatiboak, erabiliko dituztenak. Azpimarragarria da, beraz, teknika malgu, azkar eta ekonomiko gisa.

Behaketako teknika kualitatiboen aurrean, sakontasunez egindako elkarriketak aukera gehiago eman eta eraginkorragoak dira, eztabaida taldeekin batera, elkarriketatzailer baten edo elkarrekintzako taldeko testuinguru baten bitartekaritza gabe, informazio zaila lortzeko garaian.

Eztabaida taldearen teknikaren aurrean, aukeran hobeia izan daiteke elkarriketa sakona bere intimitateagatik (mahainguru batean parte hartzeari trabak jartzen dizkieten pertsonak baditugu) edo bere erosotasunagatik (ez du inora joan beharrik eskatzen).

Mugak:

Teknika honen inguruan denbora izan da, segur aski, aipatu den zailtasunik handiena. Egia da inkestaren eta are eztabaida taldearen erritmo biziagoarekin konparatuz gero, elkarriketak elkarriketatzaileraren denbora gehiago behar duela, bai egiteko orduan, bai eman behar zaion tratamenduari dagokionez ere.

Komunikazio elkarrekintzan oinarritutako beste teknikek bezalaxe, mota honetako topaketek fidagarritasun eta baliozkotasun arazo berdinak dituzte. Hau da, elkarriketatzaileraren eta elkarriketatutaren arteko bitariko harreman horretatik sortzen den informazioa, elkarriketaren egoeraren arabera da, bai eta elkarriketatzaileraren eta elkarriketatutaren ezaugarrien eta jokabidearen arabera. Eta horrek guztiak du eragina lortzen diren datuen baliagarritasunean.

Behaketa teknika kualitatiboen aurrean, elkarriketa sakonak eta eztabaida taldearen teknikak berdin, ekintza gertatzen den ingurune naturalaren behaketa zuzenaren edo parte hartzailearen muga dute (elkarriketatutako pertsonak, gertakariak izan ondoren, gogoratzen eta adierazten baititu).

Elkarriketa sakonak ez du taldearen informazio mota sortzen (taldeko egoerak batez ere, sortzen duen sinergia eta elur bolaren ondorioak); ez da berdina, era berean, estimulazio, segurtasun eta bat-batekotasuna, teknika batean zein bestean.

Elkarriketa sakonak prestatzea

Elkarriketaren gidoia

Edozein azterketa, gehiago zein gutxiago zehaztua izan arren, gaiak (gehiago edo gutxiago formulatutakoak) jorratzeko helburuarekin sortzen da. Azterketa batean garrantzitsua

jotzen den informazioa (gaiak, helburuak) izango da, neurri handi batean, elkarriketatuak, elkarriketatzailerak, estiloa eta elkarriketa errepikatzea, eskenatoki bat edo beste (denbora, tokia) hautatzea erabakiko duena.

Elkarriketaren gidoiak landu behar diren gaiak eta azpigiak jasotzen ditu, beti ere ikerketaren informazio helburuari jarraiki; nolabehere ere, ez du galderen hitzez hitzeko formulaziorik, ez erantzun aukera desberdinik ematen. Landu behar diren gaien gaineko eskema bat da; ez da itxia eta gidoian aurreikusi gabeko alderdiak modu jarraian jasotzea da xedea eta ez da, era berean, derrigorrez jarraitu behar den orden bat finkatzen.

Elkarriketatzailerak gaiak mahai gainean jartzen ditu, parte hartzaileek landu ditzaten eta taldearen jarrerak eta motibazioak ager daitezten.

Lan ildo hori prestatzerakoan, beti, orokortasunetik zehaztasunera joateko irizpideari jarraitzen zaio. Horretaz gainera, ezinbestekoa da kontuan izatea elkarriketaren iraupena eta pertsonaren edo elkarriketatutako taldearen nekea.

Elkarriketa egiteko zenbait arau daude, eta horien artean azpimarragarriak dira honako hauek:

Galdera zuzenak ekiditea, mota honetakoak, alegia: nork?, norekin?, noiz?, non?, nola? eta abar.

Gaien formulazioan ez dira jaso behar baloraziorik edo balorazio bat egitera eraman dezaketen alderdiak.

Jorra daitezkeen gaiak idazterakoan, elkarriketaren erantzuna baldintza dezaketen pistak kendu behar dira.

Elkarriketatuen hautaketa.

Nortzuei?, zenbati? eta zenbat aldiz? elkarriketatu, erantzuna behar duten galderak dira horiek. Hartutako laginen gaineko erabakiak dira, neurri batean, azterketaren proiektua egiterakoan eta, beste neurri baten, tokian tokiko lana egiterakoan osatuko direnak. Ez da erantzun erraz eta zuzenik planteatu diren galderen inguruan. Horregatik, eta guztientzako baliagarriak izan daitezkeen formulak edo errezetak eman beharrean, ideia eta irizpide nagusi batzuk eman nahi dira, aurrean izan daitezkeen kasu praktikoko ugariak konpontzeko erabilgarriak izan daitezkeenak, bestalde.

Elkarriketatuak izan daitezkeen unibertso horretara hurbildu behar da, lehenik, eskura dauzkagun iturrien bidez (errolda eta inkestetako estatistikak, azterketaren xede izan daitezkeen taldeen errolda edo zerrendak, bestelako iturriak). Ideia nagusia mota orotako informazioa jasotzea da, tamaina eta ezaugarri soziodemografikoak, banaketa edo segmentazioko aldagai adierazgarrienak eta bereizketa egitea, lehen lauki tipologiakoa ezartzeko xedez.

Beraz, lauki tipologiakoa laginak jasotzeko tresna gisa hartu behar da; ikertzaileak, laginaren heterogeneotasuna bermatzeko xedez eta adierazgarriak irizten dituen aldagaien bidez, elkarriketatuen hautaketa operatiboa egiteko erabiltzen duena.

Pertsona elkarrizketatuen hautaketa egiterakoan erantzun beharreko oinarrizko lau galdera daude, gutxienez. Galdera edo irizpide horiek honako hauek dira:

Nortzuk daukate informazio adierazgarria?

Norengana iris daiteke errazago fisikoki eta sozialki? (informazioa dutenen artean).

Nortzuk daude prestuago informazioa ematera? (informazioa dutenen eta beraiegana iris gintezkeen artean).

Zeintzuk dira egokienak informazioa zehaztasunez emateko? (informazioa dutenen, beraiegana iristeko aukera ematen eta prest dauden artean).

Bestalde, badira beste horrenbeste muga, informazioa emateko edo elkarrizketatuak izateko jarrera horretan atzera egitera eraman ditzaketenak:

Denbora falta

Norbere buruaren mehatxua (emandako informazioa ateratzea eta bere kontra bilakatzearen beldurra).

Etiketa (norbere buruaren zentsura).

Trauma (zenbait esperientzia berriro gogoratzean bizitzen den sentimendu ezatsegina)

Baina, beste mugatzaile batzuk ere badira, informazioa emateko hautatu den pertsonak izan dezakeen nolabaiteko gaitasun faltaren ondorioz. Arazo horiek izan daitezke, gertakizunak ahaztea, nahasketa kronologikoa eta gehiegi orokortzea (kontakizunaren zehaztasun falta, alegia). Bai mugatzaile hauek bai besteak, kontuan hartu beharrekoak dira elkarrizketatu behar diren pertsonak hautatzerakoan.

Konpondu behar den beste arazo bat da, zenbati egin elkarrizketa?, hau da, laginaren tamaina erabakitzea. Arazo honen muina "asebetetzea" da. Asebetetzeak esan nahi du, ikertzaileak ez duela datu osagarriak aurkitzen kategoriaren ezaugarriak garatzeko. Behin eta berriro antzeko kasuak ikusten dituen eran, ikertzaileak kategoria batek eman dezakeena eman duela, asebate dela pentsatzera iristen da.

Bestelako prestaketa lanak

Atal honetan, elkarrizketak sakontasunez prestatzeko elementu erabakigarrien multzoa jasotzen da.

1) Elkarrizketatzaileari buruz. Kanpoko ezaugarriak (generoa, adina, itxura fisikoa eta soziala bezalakoak) eta hain agerikoak ez diren beste batzuk (jarrera edo nortasuna eta gaitasuna eta gaiaren ezagupena), kontuan hartu beharreko ezaugarriak dira elkarrizketatzaile egokiak hautatzeko orduan. Komenigarria da elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko elkarrekintzan horiek guztiak izan dezaketen eragina planteatzea.

Esperientziak dio elkarrizketatzaile ideala, bere generoa, adina eta gizarte egoera edozein izanik ere, nortasun malguko pertsona izan behar duela elkarrizketatuaren ondoan. Eta azkarra izatea elkarrizketaren helburuak bereganatzeko, jasotzen duen informazioa jarrera kritikoarekin ebaluatzeko eta ikertzeko, beti ere, erantzunetan argitasun eta zehaztasun handiagoa lortzeko. Malgutasun falta hori ageri da egoera menderatzeko joera (isiluneak ekidinez eta elkarrizketatutako pertsona gehiegi zuzenduz) eta rol pasiboegia hartzen duten elkarrizketatzaileetan.

2) Denbora, tokia eta erregistroa jasotzeko baldintzei buruz. Elkarriketa egiteko hautatzen den tokia eta uneak, eta are elkarriketa erregistratzeko moduak, informazioa lortzeko garaian eragina (positiboa eta negatiboa) izan dezaketen produkzio baldintzak dira berez. Beraz, komenigarria da oinarritzko prestaketa lan gisa hartzea, baina elkarriketatuarekin negoziatzea ere ezinbesteko izango da.

Elkarriketaren kalitatea ez dago elkarriketatzailearen ezaugarrien eta rolen mende bakarrik, eragin handia baitute elkarriketa egiteko hautatu diren tokiak eta uneak.

Hobea da, banako elkarriketa bat izateko aukera eman dezakeen toki bat izatea, elkarriketatutako pertsona horren arreta desbideratu edo isilarazi dezaketen beste pertsonak biltzen dituen tokia baino. Oso komenigarria izaten da lasaitasun apur bat izatea, pribazitateaz gainera, informazioa jasotzeko jarrera bultzatuko duen giro bat sortuko baita. Elkarriketa jasotzeko baliabideei dagokienez, gaur egun gehien erabiltzen dena, magnetofon grabatzea izaten da.

Elkarriketa taktikak

Elkarriketaren aurrean elkarriketatzaileak erabil ditzakeen taktikak, elkarriketatzailearen trebetasunaren eta gaitasunaren agerkari dira, elkarriketa egiten ari den bitartean inprobisatzen baitu. Azken batean, ahozko zein gorputzaren bidezko portaerak dira, egoera bakoitzak une bakoitzean eskatzen duen portaera erabiltzea

Isiltasunaren taktika. Oso egokia izan ohi da, dagokion unean erabiltzen jakinez gero eta, batez ere, "ibilaldi nekearekin" nahasten ez bada: elkarriketaren barne isiltasuna gehiegi erabiltzeak, elkarriketatutako pertsona laguntzarik eta orientabiderik gabe uzteko arriskua dauka.

Animazio eta laguntza taktikak: Lehen kategorian sartzen dira mota orotako ohar, zarata eta keinuak, elkarriketatzaileak esaten zaiona onartzen duela eta hitz egiten jarrai dezan nahi duela adierazten baitzaio elkarriketatuari. Eginkizun hau betetzen dute "a!", "mmm", "bai" adierazpenek, burua baietza adieraziz mugitzea edo aurpegi adikorra jartzea. Ez zaizkio elkarriketatutako pertsonari solasaldirako gai berriak zehazten. Bigarren kategorian, berriz, pertsona animatzeaz gainera, hitz egiten ari den gaian sakon dezan eskatzea sartzen da. Esan dakizkiokeen gauzen artean, "beraz?", "zerbait erantsi nahiko zenuke?", eta abar sartzen dira. Isiltasunaren teknikak bezalaxe, teknika honek askatasuna ematen dio elkarriketatuari bere kontakizunaren kateari jarrai dakion eta, era berean, esaten ari denak interesa sortzen duela erakusten.

Baieztatzeko edo errepikatzeko taktika. Oinarri oinarrian, elkarriketatuak adierazitako esamoldeak errepikatuz informazio osagarria, galdera zuzenik egin gabe, lortzean datza. Hala, bere adierazpenak jorratzen jarrai dezan bultzatzen da elkarriketatuak; eta, bide batez, ulertzen zaiola adierazteaz gain, interesekin entzuten zaiola erakusten.

Laburbiltzearen taktika. Elkarriketatuak honezkero aipatu duen alderdi bat berriro azaltzea bultzatzen da. Bigarren kontakizun honetan gehiago lantzeko joera bat ageri ohi da eta, taktika honek aldi berean, beste taktika errepikatzaileak erabiltzearen, galdera asko egitearen eta hainbeste etenaldi egin beharra gutxitu dezake.

Gaiak aldatzearen taktika. Artean landu ez diren gaiak azaltzeko elkarriketatzailerak derrigorrez egin beharreko galderak izan ohi diren arren, erabil daiteke teknika hori elkarriketatuak neka dezakeen gai zail bat zeharretik baino ez jorratzeko.

Argitasunak emateko taktika. Argitasunak emateko taktika honek forma desberdinak izan ohi ditu. Alde batetik, elkarriketatzailerak elkarriketatuari eska diezaiotke, gertakarien sekuentzia zehatzago bat egitea, kontatu berri duen ekintzaren une jakin batetik aurrera: "zer gertatu zen ... ondoren?"; edo alderdi jakin bat xehetasun handiagoz azaltzea: "nola konturatu zinen...?", "zergatik uste zenuen,...?". Normalean, argitasun horiek beharrezkoak izango dira laguntza taktikak gehiago ematen ez duenean.

Elkarriketa ondorena. Izenak berak dioen bezala, elkarriketa formala amaitutzat eman ondoren izan daitekeen jarraipena da, egoera berri bat eta bakoitzaren rolak birdefinitzen direnean ematen den harremana, alegia. Elkarriketaren luzapen honek, mikrofonorik gabekoa, funtzio oso interesgarriak izan ditzake:

- Lagun artean hitz egiteko arobetxa daiteke, elkarriketatu den pertsonak oroitzapen on bat izan dezan eta elkarriketatu daitezkeen beste pertsona batzuk ez ditza atzerarazi.
- Elkarriketatu den pertsonak, elkarriketa formalaren garaian gorde duen informazio motaren bat jaso edo sumatzeko aukera ezin hobe izaten da.

EZTABAIDA TALDEAK

Taldeko bilerak dira, parte hartu duten guztiak elkartu eta gai desberdinen gaineko eztabaida ireki eta aberats batean, denbora jakin batean zehar, murgiltzeko topaketak.

Eztabaida taldeak edo talde fokalizatuak teknika espezifiko bat izan daitezke, informazio kualitatiboa lortzera begira dauden taldeko elkarriketen kategoria zabalago baten barne koka daitezkeenak.

Talde fokalizatuak

Teknika honen aplikazioak asko eta ugariak dira (merkatuko azterketatan, gizarte alorrean egin beharreko galdetegiak egiterakoan edo programen ebaluaketa egiterakoan), eta besteak beste:

- a) Ikerketa asmoak ditu, aurkikuntza edo prestaketa izaerakoak nabarmenduz (gaiaren ezagupena, galdetegiaren gaineko frogak, produktu edo gai jakin baten aurreko jarreraren balorazioa, irudi edo orientabidea aldatzea, eta abar).
- b) Egiteko toki zehatz bat izatea, elkarriketa izan ohi den inguru formalean (ez naturalak).
- c) Moderatzaile batek zuzendutako edo erdi-zuzendutakoa izatea eta, oro har, elkarriketaren eta galderaren formatoa zerbait egituratua izan ohi da.

Teknika honi erabilera nagusi bat eman izan zaio "aspalditik" (audientzia eta merkatuen ikerketan), baina honek ez du esan nahi ezin daitezkeenik beste alorretan edo modu aitzindari batean erabili.

Teknika honen egungo joerak, gizarte esparruko ikerketan, taldeko bilerak sortzeko beharra azpimarratzen du zenbait xede betetzeko. Xede horien artean sartzen dira: oinarritzko ikerketa, programen ebaluaketa, aldaketara begirako ikerketa eta politiken ikerketa.

Eztabaida taldeen eta bestelako teknika edo metodoen erabilera bateratua.
Eztabaida taldeen eta inkestaren bateraketa

Elkar lotura hori gehien erabili eta erabiltzen eta dokumentatua dagoen konbinaketa da.

1. erabilera: Inkestaren aurretik

Galdetegiaren diseinua prestatzea.
 Ukapen eta erantzun ezeko arazoei aurre hartzea.

2. erabilera: Inkesta egin ondoren.

Inkestaren beraren ebaluaketa kualitatiboa (erantzunak, gizarte giroa, irudikapen psikosozialak...).

3. erabilera: Inkestaren azterketaren ondoren.

Emaizten egiaztapena
 Azterketa kuantitatiboaren ondorioz ateratako erlazioetan sakontzea.

4. erabilera: Inkesta egiten den une berean.

Aparteko ikerketak egiteko aukerak sortzea.

1. erabilera izan da gehien landu dena. Erabilera honetarako argudiorik ohikoena da, eztabaida taldeak eta bestelako metodo kualitatiboak, lanean hasi aurreko tresna bat direla, baina bere emaitzak, lagin adierazgarrien gainean egindako lan kuantitatiboaren bidez egiaztatu behar direla. Argudio honen baliagarritasuna merkatuko azterketek izaten dituzten helburuetan datza, etorkizuneko salmentaren proiektzio zehatzak egiteko helburuetan, alegia. Aldiz, kontrako argudio gisa adierazten da, ikerketa gizarte zientzian ez dela hain helburu estuetara mugatzen eta, horrenbestez, eztabaida taldeek, edo beste edozein teknika kualitatiboek, ez dutela osagarririk behar edo beste teknika kuantitatiboekin baieztatzeko beharrik.

Eztabaida taldeen erabilera autosufizienteak

Eztabaida taldeak bestelako teknika edo metodo kualitatibo eta kuantitatiboekin lotzeak izan ditzakeen abantailak onartu arren, beharrezkoa da eztabaida taldeek, eurek bakarrik eta gizarte ikerketarako, izan dezaketen garrantzia azpimarratzea. Erabileren kategoria honetan, atal honetan autosufizienteak deitu ditugunen barne, eztabaida taldeen mende bakarrik dauden proiektuak jasoko dira.

Erlatibotasuna zehaztu behar da, talde edo proiektu horien izaera autosufizientea, alegia. Izan ere, egunerokotasunean, nolabaiteko autonomia duten erabilerak dira, nahiz eta ikerketa programa zabalago batzuetako zati izan.

Eztabaida taldeen abantailak eta mugak

Abantailak:

Erraza, merkea eta azkarra. Beste teknika kualitatiboen (banako elkarriketa edo behaketa parte hartzailea) eta inkestaren aldean, taldeek dituzten abantaila gisa aipatu dira horiek, eztabaida taldeei buruzko zenbait eskuliburutan. Alabaina, praktikan, abantaila horiek, ohiko usteen kategorian sartu beharko liriteke: "Eztabaida taldeen bilerak azkar oso egoera gutxitan antola daitezke. Bilerak ordu bete edo bi irauten badu ere, denbora behar izaten da galdera multzo eraginkor bat osatzeko, parte hartzaile egokienak aurkitzeko eta ematen duten informazioa ulertzeko. Gerta daiteke, era berean, tokian tokiko lana eta azterketa garestiak eta neketsuak izatea, parte hartzaileak inguruan izan eta proiektuaren helburuak oso mugatuak eta zuzenak ez badira, behintzat".

Malgutasuna. Esan ohi da taldeak oso malguak direla beste teknika kualitatibo eta kuantitatiboen aldean, izan ere, pertsona desberdinek parte hartuz eta inguru anitzetan egin daitezkeenez, gai mota askoren gaineko ikerketa egiteko erabil baitaitezke.

Taldeko elkarrekintza. Material kualitatiboa aztertzeko eta sortzeko aukera asko dituzte, ez bakarrik elkarriketatzaile-moderatzaile batek parte hartzen duelako, baizik eta elkarriketatutako pertsona batzuk parte hartzen dutelako. Taldean bilduta egoteak eragiten du ematen diren erantzunak edo elkarrekintzak, bileran bildutako beste pertsonen erantzunen edo elkarrekintzen ondorio izatea. "Sinergia efektua" da, taldean egoteak sortzen duena da, eta elkarriketatzailearen eta elkarriketatuaren arteko banako elkarriketetan eman ezin zitekeen informazioa lortzeko ekintzatik sortzen dena.

Eragozpenak:

1. Naturaltasun falta. Sarritan egin ohi den salaketa da, ekintza burutzen den testuinguru naturalen behaketa zuzenaren falta, eztabaida taldeetan bildutako pertsonen eguneroko bizitzaren falta. Eztabaida taldeen teoriko batzuen iritziz, ordea, naturaltasun falta hori onuragarria da. Izan ere, baieztatzen dute teoriko hauek: "oinarrizkoa eta garrantzitsua da aurrez osatutako talde bat edo naturala ez izatea, aldez aurretik osatutako harreman aztarnarik ez izatea taldean, beren hizketaldian ez daitezen interferentziarik izan".

2. Taldearen elkarrekintzatik sortutako eragozpenak, metodologia klasikoan jarraibideetatik planteatutakoak: baliagarritasuna, fidagarritasuna. Modu honetan lortutako datuen gainean ikertzaileak duen kontrol gutxiago hori arazo larri bat izatera iris daiteke, beti ere taldeko elkarriketa desberdinen artean nolabaiteko konparagarritasuna izatea derrigorrezkoa jotzen bada. "Taldeak oso desberdinak izan daitezke elkarren artean, talde bat lo, aspertuta, baldartuta egon daiteke eta hurrengoak, berriz, irizpide berdinekin hautatu dena, bizia, indartsua, adorea, ... izan."

Hiru eragozpen posible:

- Taldeko kideen erantzunak ez dira independenteak batzuen eta besteen artean, eta horrek emaitzak orokortzea mugatzen du.
- Emaitzak baldintzatuta egon daitezke, kide oso dominatzaile bat dagoenean tartean.
- Moderatzaileak ere baldintzatu egin ditzake emaitzak, zer motatako erantzunak espero direnari buruzko pistak, kontzienteki edo inkontzienteki, ematen baditu.

Taldeak osatzeari buruzko erabakiak laginetan oinarrituta.

Zenbat talde osatu behar dira? eta, nola osatu behar dira? dira, erantzuna behar duten oinarritzko bi galderak. Laginetan oinarritutako erabakiak dira, azterketaren proiektua egiterakoan eta tokian tokiko lana egiten den bitartean hartzen diren erabakiak.

Sakontasunezko banako elkarrizketetan gertatzen denaren antzera, eztabaida taldeen bidez ez da irudikapen estatistiko bat lortu nahi, irudikapen tipologiako bat baizik, gizarte-egiturazkoa, ikerketaren xedeei jarraiki eta baliabideen eta denboraren gorabeheren arabera.

Beraz, taldeen kopurua eta berauen osaketa, laginak jasotzeko oinarritzko bi irizpideen arabera izango dira:

1. Taldeen arteko heterogeneotasuna. Parte hartzaileen hautaketa eta taldeetan biltzea erabakitzen du, azterketaren helburuen arabera elkarrizketa adierazgarri edo egokiak lortzeari begira.
2. Ekonomia. Denbora eta diru mugak jartzen ditu, ondasunak urriak direnez gero.

Oinarritzko irizpide horietaz gain, taldeen kopurua eta osaketa, era berean, autosufizientzia mailaren edo teknika kualitatibo hau beste teknika kualitatibo edo kuantitatiboekin lotzeko aukeraren mende egongo da.

Eta zehazki, eztabaida talde bakoitza diseinatzeko orduan, kontuan izan behar da barneko osaketa eta horretarako, ahal den heterogeneotasunik handiena gordetzeko irizpidea izango da nagusi. Gauza da eguneroko bizitzan elkarren aurka edo elkarrengandik bereiztuta dauden aldeak ez elkartzea. " Homogeneotasuna lortu nahi da, lan, gizarte klase, hezkuntza maila, adina, kultura edo familiako ezaugarrien inguruan". Aldagai soziodemografikoen multzoa beraz, status sozioekonomikoaren kontzeptuan laburbiltzen da.

Taldeko teknika honen beste ezaugarri bat da, talde bakoitzean parte hartzen duten kideen kopurua. Gomendioa da taldearen tamaina lortu nahi den informazio motaren (gaia) eta parte hartzaileen ezaugarrien arabera erabakitzea: talde txikiak, eztabaidaren inguruan esperientzia handia duten adituekin edo pertsonekin osatuta; talde handiak, berriz, informazio zabalago bat lortu nahi denean.

Badirudi garbi dagoela, ez direla gomendagarriak hamabi pertsona baino gehiagoko taldeak, hitz egiteko aukera gutxi dagoenean, bere barne talde txikiagoak sortzeko joera baitago. Aldiz, talde oso txikiek (3 eta 5 pertsona bitartekoak) informazio aukera mugatuagoak dituzte eta kide bakoitzaren parte hartze handiagoa eskatzen.

Elkarrizketa sakonak prestatzea (banakoak eta taldekoak)

(ikus elkarrizketa)

Elkarrizketaren gidoia.
Elkarrizketatuak hautatzea.
Bestelako prestaketak
Elkarrizketa taktikak

Bileraren kudeaketa za tiak

Prestatzea

Oso garbi izan behar dugu, zer lortu nahi dugun bilera eginez, eta bileran landuko den gaia edo gaiak prestatuta eduki. Pertsona batek atzera egiteko edo parte ez hartzeko arrazoi edo beldurrak izan daitezke, honakoak:

Barregarri geratzearen beldurra.
Gaizki hitz egitearen beldurra.
Besteen aurrean gaizki geratzearen beldurra
Gainontzekoen erreakzioen beldurra... .

Behin bilerari hasiera eman ondoren, gomendagarria da:

- Pertsonak sentsibilizatzea eta motibatzea
- Helburu zehatzak, sailkagarriak eta koherenteak adierazten laguntzea.
- Taldeko lana errazteko erreferentzia markoak ezartzea.
- Beharrezkoa izanez gero, banako zein taldeko eskaerak berbideratzea.
- Pertsona guztiek parte har dezaten ahalegintzea.
- Parte hartzeko metodoak proposatzea.
- Erantzukizunak bereganatzen laguntzea.
- Taldeak bere burua kudea dezan lortzea.
- Objektiboa izatea.
- Norbaitek bilera bere egin dezan ekiditea.
- Bilera berbideratzea, helburutik aldenduz gero.
- Zehaztutako denbora errespetatzea eta errespetaraztea.
- Taldeak bere burua ebalua dezan laguntzea.
- Taldeen dinamika teknikak modu egokian erabiltzea.
- Autoebaluatzea aldiari aldi.

Horrek guztiak berez dakar, bilera zuzentzen duenak kalitate espezifiko batzuk izatea, eta besteak beste: heldutasuna, emozio oreka, errealitatearen jabe izatea, entzuten jakitea, ekimen eta sormen gaitasuna, objektibitatea eta erantzukizuna izatea.

Ondorioak

Bilera amaitu ondoren bere funtzionamenduaren ebaluaketa egin beharko da, proposatu diren helburuak zenbateraino bete diren jakiteko eta zein den lortutako informazioaren kalitatea/kantitatea erlazioa eta informazioa adierazgarria izan den ala ez. Bestalde, akta jasoko da edo bestelako erregistro sistema bat erabiliko helburu berdinarekin.

Moderatzailearen rola

- Bilera hasi aurretik grabatu egingo dela azalduko dugu eta grabaketaren helburua, ondorioak ateratzea erraztea baino ez dela. Bileretan hitz egindako guztiaren konfidentzialtasuna azpimarratu behar da.
- Oso garrantzitsua da taldeko bilera bakoitza xehetasun osoz prestatzea.
- Bilera bakoitzaren aurretik oso garbi izan behar dugu gidoia edo landuko diren gaiak. Komenigarria da, ahal den neurrian buruz ikastea.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

- Moderatzailea parte hartzaileei zuzentzen zaienean edukazioz eta errespetuz zuzenduko zaizkie, adiskidetasun giro bat izaten ahaleginduz.
- Giro atsegin bat, enpatikoa sortu, guztiek askatasunez hitz egin dezaten.
- Protagonismoa 2-3 pertsonen har dezaten eragozte, partaide guztiek esku har dezaten ahal den neurrian.
- Ahal den neurrian, eta grabaketaren kalitatea txarra izango denaren aitzakiaz, zurrumurruak ekiditen ahalegindu.
- Kontu izan behar dugu iritzi edo adiskidetasun talde txikiak ez daitezen sortu: lan talde bakar bat dira.
- Zenbait unetan, bileraren erdialdera, esaterako, ordurako atera diren bitarteko ondorioak laburbildu. Modu horretan, sakondu egingo dugu eta gaiak errepikatzea ekidingo.
- Oso garrantzitsua da parte hartzaileei hitza ez kentzea, ez bada behintzat, zehaztutako gaietatik aldentzen ari direlako.
- Moderatzaileak parte hartzen du, bakar bakarrik, taldea norabide batean bideratzeko edo bultzatzeko.
- Koordinatzaileak garbi, ozen eta zehatz hitz egin behar du, parte hartzen dutenek jarrera berdina har dezaten saiatur eta grabazioa ondo egin dadin.
- Moderatzaileak ez ditu bere iritziak eman behar ez eta parte hartzaileek emandakoak eztabaidatu ere. Bere eginkizuna ez da ideiak sortzea, baizik eta gogoeta egin dadin eta gertakizun jakin bat gertatzeko arrazoiak elkarrekin bilatzen laguntzea.
- Ahal den neurrian galdera zuzenak ekidin behar dira, hala nola, Nork?, zergatik?, noiz?, eta abar. Gauza da gaiak modu irekian eta orokorrean azaltzea, eztabaidarako aukera emateko moduan.
- Moderatzailea ez dago galderak erantzuteko eta egingo balitzaizkio partehartzaileei berbidera dakizkieke aitzakiak jarritz, "ez naiz aditua gai horretan, jakitunak zuek zarete", "garrantzitsuenaren iritziak dira",... .
- Moderatzailearen isiltasuna tresna egokia da, taldea parte hartzera bultzatzeko.
- Moderatzaileak agindu egiten du, ez zaio status horri uko egin behar, ez eta taldeko beste bat izaten ahalegindu ere, nahiz eta kanpoko bat ere ez izan. Bere eginkizuna behatzea da, gidatzea, gaiak berbideratzea,...

Bultzatu. Zer da bultzatzea?

"Bultzatu, hitz eginaraztea da ezertan sartu gabe"

Elkarriketa modu egokian bultzatzeko ezinbesteko betebeharrak:

1. Elkarriketa dagokion unean egitea.
2. Elkarriketa bultzatu elkarriketatutako pertsonarengan, ez bere erantzunetan, inolako eraginik sortu gabe. Eta horretarako:

Ez da elkarriketa INOIZ bultzatu behar agintzeko jarrerarekin, laguntza ebaluatzeko, laguntza morala emateko jarrerarekin edo interpretazioa eginez.

Ez da elkarriketa INOIZ bultzatu behar, aurrez elkarriketatzailerak askatasunez aipatu ez dituen gai berriei buruzko galderak eginez.

GUTXITAN bultzatu behar da elkarriketa bat inkestako jarrera edo jokabidearekin. Ez da galdera formarik erabil behar elkarriketa bultzatzerakoan: zeren, zer esan nahi duzu, nola, zertan, eta abar.

Ahal den neurrian, BETI bultzatu behar da elkarriketa jarrera ulerkor batekin.

3. Elkarriketak bultzatu behar dira egiten ari garen azterketarako interesgarriak izan daitezkeen alderdien gainean. Elkarriketa ez da bultzatu behar bultzatze hutsagatik.

4. Elkarriketa zintan grabatzen bada ere, elkarriketa modu egokian bultzatzeko, elkarriketatzaileak bere koadernoan jaso beharko ditu elkarriketatuak adierazten dituen ideiak eta esaldian, ondoren elkarriketa adierazitako horren inguruan bultzatzeko.

Kontuan izan beharreko alderdiak datuak interpretatzeko orduan.

Datuak aztertzeko orduan, eta beste zenbait alderdien artean, kontuan izan behar da elkarriketatutako pertsonaren ingurune soziokulturala. Izan ere, eragina izan dezake, hizkuntza eta diskurtsoa ulertzeko orduan, zenbait aurreiritzitan, eta abar.

BEHAKETA

Esan genezake edozein ikerketa forma behaketa dela, baina "behaketa" errealitatea zuzenean deskribatzeko ahalegintzat ulertu ohi da. Behaketak, gertaera, bere ingurune naturalean sortzen den eran deskribatzea luke helburu. Behaketaren xedea da deskribapen adierazgarriak lortzea.

Behaketa zuzena

Behaketatzat ulertu ohi dena, berau bezain behatzaileak izan daitezkeen bestelako teknikatik bereizten da, baina, agian, zeharkakotzat jo beharko genukeen perspektiba batetik. Esate baterako elkarriketa (banakoa edo taldekoa), galdetegia, edukiaren azterketa, eta abarren kasua. Teknika horien bidez ikertzaileak ez du bere lanaren oinarri gisa hartzen aztertutako gertaeraren bere bertsioa, baizik eta beste pertsona batzuk ematen diotena. Saioan eta behaketan, ordea, fenomenoaren bere deskribapenarekin lan egin nahi izan ohi du ikertzaileak.

Behaketa partehartzailea

Aspaldidanik, metodologiako testuek bi motatako behaketak bereizten dituzte: behaketa partehartzailea eta behaketa ez partehartzailea. Behaketa partehartzailea, fenomeno bat barnetik zuzenean deskribatzean datza, hau da, aztertu nahi dugu pertsonen jokabidea pertsona horien bizi modua eginez aztertea.

Agian, horregatik, behaketa partehartzaileak du bere toki berezia jarduera moduetan, bere helburua ez baita datuak lortzea, esku hartzea baizik. Eta hain zuzen ere, horixe gertatzen da "ikerketa-ekintza-partaidetza" printzipioan oinarritutakoetatik eratorritakoen kasuetan, ikertzailea gizarte aldetako agentea baita. Kasu horietan, "behatzaile partehartzaile" hutsa izan beharrean, "partehartzaile behatzaileak" izan ohi dira; arazo desberdinen inguruan inplikaturako pertsonen gogoeta bultzatzea eta elkarrekin erabaki desberdinak hartzea bultzatzea baita eginkizuna. Kasu horietan, lortutako ezagupenak ez dute zertan objektiboak izan behar, erabakitzaileak baizik, eta ez da, era berean, kezagarria, behatzaileak prozesuarekin batera elkar eragiten eta aldatzen badute behatzen duten bitartean.

Nolanahi ere, behaketa partehartzaileak informazio balio handi bat dauka, batez ere, gutxi ezagutzen diren egoerak edo arazoak salatzen dituenean, sarritan ezin izango baitzitzaiekin ekin beste modu batera.

Ez daude arau zehatzegiak behaketa partehartzailea gauzatzeko. Beharrezkoa da, noski, buru argia izatea, egoeraren alde aurreko ezagupena, egokitzeko gaitasuna, aktore samarra izatea, sinpatikotasuna eta buru diziplina handia, arrazoi teorikoak praktikoak direla eta, interesatzen zaizkigun gaiak buruan jasotzeko eta ez galtzeko.

Behaketa partehartzailea garatzeko aholkuak

Modu ulergarrian adieraztea behatzen ditugun pertsonen zergatik gauden han; eta behar diren azalpen osagarri guztiak emateko prest egotea.

Behatzen ari garen taldeko liderren sinpatia lortzen badugu errazagoa izango da kide guztien laguntza jasotzea eta haien aldeko jarrera.

Behatzaileak ez du zertan besteak bezala, modu berdinean jokatu beharrik; nahikoa du atsegin izatea, interesa agertzea eta, batez ere, trabarik ez jartzea. Hala, bada, garrantzitsua da, behatutako talde edo taldeetan sor daitezkeen gatazken aurrean ez egitea batzuen edo besteen alde.

Behaketa partehartzaileak berez behar du denbora asko. Derrigorrezkoa da, jendearekin bizitzea, ikuspegi horretatik deskribatzeko.

Behaketa partehartzaileak aukera asko ematen ditu azterketa teknika gisa eta, zenbait kasutan, ondo ezagutzen ez diren errealitateak zehaztasunez deskribatzeko. Alabaina, eta zenbait arrazoi tarteko, behaketa partehartzailea ez dago edonoren esku eta ez ditu beti emaitza errealak bermatzen; metodo hau bezain atsegina baina seguruago eta errentagarritasun handiagokoa da behaketa sistematikoa deitzen duguna. Behaketa mota honen bidez kontrol eta azterketa prozedura bereziak egin behar dira, azterketa sekuentziala eta fidagarritasun kalkulua, besteak beste.

Behaketa sistematikoa

Behaketa sistematikoa ez da, logikaren ikuspegitik, behaketa partehartzailearen antitesia bai, ordea, praktikaren ikuspegitik zeren eta bere konplexutasunak eta tresna ezaugarriak eragozten baitute partehartzailea izatea, eta lortzen diren datuak ere desberdinak izaten baitira behaketa partehartzailearen aldean. Behaketa sistematikoaren "hoztasun" honek, ordea, baditu bestelako abantaila batzuk, egoera desberdinetara zabal daitezkeen ezagupenak errazago lortzeko aukera ematen baitigu eta, batez ere, ez dagoela behatzailearen kalitate pertsonalen mende datu fidagarriak lortzea.

Gu, Weick-ek (1985) egindako behaketa sistematikoaren definizioan oinarrituko gara. Autore honek "behaketa iraunkor, esplizitua, metodiko gisa eta testuinguru naturalean ematen diren gizarte egoeren parafrasi gisa" definitzen du behaketa sistematikoa.

Informazio sistematikoa iraunkorra dela esan ohi da, denboran luzatzen delako, aldi jakin batean zehar izaten diren aldaketak ikusteko aukera emanez. Behaketa partehartzaileak azterketagai zirenekin denbora asko igarotzea eskatzen bazuen ere, behaketa sistematikoak,

aldiz, zenbait unetan izan ohi ziren jarreretan izandako aldaketak azaltzen eta kausa erlazioak edo behatutako koerlazioak finkatzen ditu.

Behaketa mota hori esplizitua da, jarreraren sekuentzia edo jarreraren errepikapen ziklikoetarako ereduak identifikatzea delako bere helburua.

Metodikoa da behatzaileak datuak bildu behar diren teknikan trebatzea eskatzen duelako. Kontuan izan behar da behaketak ez dituela datuak bakarrik jasotzen, landu eta aztertu ere egiten baititu. Hala, ondorioz, adierazgarria ez dena baztertu egiten da eta ikerketarako garrantzitsua irizten dena hartu.

Etengabe behatzen ditugu gainontzekoen ahozko zein bestelako adierazpen eta jarduerak eta aurreko behaketetan oinarritutako balio iritziekin erkatzen. Hala, etengabeko behaketa eta erkaketa honen bidez gainontzekoen jokabidea uler dezakegu. Badakigu modu honetara bildutako informazioak ez duela beti garrantzi berdina guretzat eta, horregatik burutzen ditugu behaketa sistematikoan derrigorrez egin beharreko beste bi eginkizun: adostasun batetara iristea gainontzekoekin modu sistematikoan (behaketa metodikoa) eta behatutako ekintzak zabaltzea, ikuspegi jakin batekin interpretatzen ditugun ekintzak, alegia (behaketa parafrasi gisa).

Behaketa sistematikoaren helburua da, gure behaketaren ondorioz izaten ditugun emaitzetan ematen diren erregulartasunak ulertzea.

Gure interesa, beren erantzunak modu irekian aldatzeko askatasuna, ikertzailearen eraginik gabe (edo ahal den gutxienean), izan behar duten pertsonen jokabidean zentratzen bada, baldintza "naturaletan" edo "erdinaturaletan" egiten diren eta kontrolpeko laborategiko egoeretan egiten diren azterketetan gertatzen den bezalaxe, eta erantzunak oso mugatuak badira, badirudi aukerarik egokiena behaketa sistematikoa dela.

Behaketaren sistematizazioa

Esan nahi du, modurik egokienean zehaztu beharko dugula zeintzuk diren aurreikuspen baliorik dituzten jarrerako jokabideak, kuantifikableak eta, noski, egokiak izango direnak esku artean dagoen arazoari dagokionez. Hala, bada, behaketa sistematizatzea derrigorrezkoa izango da neurtzeko. Gure emaitzak neurtzeko, kuantifikatzeko aukera sistematizazio honen kalitatearen menpekoa izango da.

Behaketa sistematikoa kanpoko kontrol baten bidez lortzen da, teoriak eta arazo jakin horrek zuzenduko duena, behaketa jokabide garrantzitsua, garrantzitsua ez denetik bereizten lagunduko digun moduan egituratzeko. Sistematizazioa datuak modu egokian biltzeko tresna gisa hartu behar da, izan ere ez baita interesekoa dena erregistratzea edo ez baita posible tresnen edo bestelako arazoak direla tarteko.

Ezin genezake ahaztu, sistematizazioa beti beharrezkoa izango bada ere, arazo bakoitza desberdina dela eta, ondorioz, gure sistematizazioak ezaugarri propioak izan behar dituela. Hala, bada, esan behar da, ikertzaileak izan dezakeen frustraziorik handienak ez direla bere ikerketaren emaitza txarren ondorio, baizik eta bere datuak, agian asko eta lan handiarekin lortutakoak, ez direla adierazgarriak konturatzean, behatu behar denari buruzko alde aurreko eta ondo finkatutako irizpiderik ez duelako ezarri.

Behaketa sistematikoaren statusaren bidez ez da, sarritan uste izan ohi den bezala, datuak biltzeko estrategia finkatzen eta hortik frustrazioa. Sistematizazioa behatzaileen artean lortzen den adostasun mailaren arabera izango da, hau da, behatu behar diren ekintzen eta ikerketaren neurketa sistema osatuko duen jarrera modalitateen kodifikaziorako eskema erabakitzean lortzen den behaketa mailaren arabera.

Diseinua

Behaketa egitea erabakitzen dugunean, erregistro taula bat osatzeko joera izaten da, behatu beharreko jokabideak edo egoerak jasoz behaketaren xedea ez ahazteko eta alderdi jakin batzuk zehazki aztertzeko. Objektibitatea, baliagarritasuna eta fidagarritasuna ere behaketa orotako bete beharreko baldintzak dira.

Behaketa planifikatzeko garaian, zenbait gai zehaztu beharko ditugu:

- Zer behatu nahi dugu eta zergatik?
- Behaketa mota: behaketa zuena (jokabideak izaten diren eran) edo zeharkakoa izango da (behatutako pertsonak erakutsi duenaren arabera, eragin beharko ditugun jokabideak).
- Erregistroaren sistematizazio maila
- Behatzaileen parte hartzea: behaketa ez partehartzailea, behaketa partehartzailea, eta autobehaketa.
- Deskribapen maila: behatu nahi dugunaren xehetasun eta sakontasun maila.
- Jokabidearen edukia: ahozkoa, ez-ahozkoa, para-ahozkoa, espaziala,...
- Noiz egingo da behaketa.
- Non egingo da behaketa.
- Nor behatuko da.
- Zenbat denboran zehar.
- Nork egingo du behaketa.

Aplikazioa

Behaketa, prozesuak irauten duen denbora osoan zehar egin ahal izango dugu, interesatzen zaizkigun gertakariak jasoz edo une jakinetan gertatzen dena jasoz. Behatzaileak ikusten duena deskribatu behar du balio iritzirik eman gabe.

Behatu behar den egoera behatzaileak ezagutzen duenean, normalean behaketa ildo bat egiten da (edo egindako bat hautatzen da): Lan ildo horretan, aldezturik, behaketa kategoria edo unitate kopuru jakin bat zehazten da. Behaketa egiten duen pertsona, aldezturik lan ildoan zehaztu dituen jokabide haiek identifikatzera eta jasotzera mugatzen da – adierazle sistema-.

Behaketa egiten duen pertsonak egoera ezagutzen ez duen kasuan, pertsona horrek gertakari guztiak jasoko ditu narrazio bat egiten ariren bultzatzean eta, ondoren, informazioa kategorietan bereiztuko. Sistema hori erabiltzen da, era berean, behaketa deskribatzailea egiten denean.

Behaketa sistematikoaren abantailak

- Behatu behar den objektua ondo definituta dago, bere jarrera, subjektu eta egoerei dagokienez.
- Aldez aurretik finkatuta daude informazioaren hautaketarako irizpideak.
- Nahikoa zehaztasun bermatzen du lortutako datuetan.
- Kuantifika daitezke lortutako datuak.

GALDETEGIA

Galdetegia idatziz egindako galdera sorta bat da, erantzun behar diren galdera kopuru bat. Galdera horien erantzunak irekiak edo itxiak izan daitezke.

Galdetegiak inkestak egiteko erabiltzen direnean, inkesta-egilearen eskuhartzea minimoa da, bai ez dagoelako bertan fisikoki (galdetegia postaz bidali delako), bai idatzita dauden galderak egitera mugatzen delako, areago joan gabe.

Galdetegia elkarrizketen testuinguruan ere erabiltzen da, baina orduan beste izaera bat du, elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren artean sortzen den harremanagatik.

Diseinua

Behin, galdetegia zein ezaugarritako ingurunean erabiliko den erabaki ondoren, diseinatu egin beharko da. Eta horretarako honakoa egin beharko da, aldez aurretik:

- Galdetegiaren xedea erabakitzea.
- Zuzenduko zaion populazioa zehaztea eta pertsona guztiei aplikatzea posible izango den ala ez aztertzea.
- Informazioa ahalik eta ondoen jasotzeko aukera ematen duen galdetegi mota hautatzea.
- Aplikatzeak eragingo dituen kostuak balioztatzea.
- Aldagai kategoriak eta adierazleak zehaztea.
- Kategoria horiek galdera idatzietan jasotzea.
- Galdetegiaren lehen zirriborro bat egitea.
- Zirriborroa aztertu eta galderak berrikustea.
- Galdetegiaren lehen test bat egitea.
- Galdetegiaren gaineko azkeneko oharrak jasotzea eta erabilera modua definitzea.

Idazten dugun bitartean kontuan izan beharko ditugu, hala erantzunen modalitatea (irekia edo itxia), nola galderak izango duen eginkizuna (harremana estutzea, gai zailak jorratzea,...). Beraz, galdetegiaren diseinuan galderen edukia eta forma jasotzen dira.

Galdetegia idazteko arau batzuk dira, ondoren zehazten direnak:

- Oro har, galdera gutxi idatzi behar dira (beharrezkoak direnak baino ez).
- Erantzuna baiezkoa ala ezezkoa, proposatutako kategoria bat hautatzea edo zenbaki bat emateko moduan egin behar dira galderak. Erantzun irekiko modalitatea ere hauta daiteke baina zailagoa da kodifikatzea.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

- Argiak izan behar dute, zalantzarik sortzen ez dutenak, eta zuzenduko zaion populazioak erraz ulertzeko moduan idatzi behar dira.
- Inolako aurreiritzirik sortuko ez duten moduan formulatu behar dira.
- Ez dira indiskretuak izango, beste erremediorik ez dagoen bitartean.
- Modu naturalean idatziko dira, ez dezaten erantzun positibo zein negatiborako aukerarik eman.
- Hitzak hautatzerakoan kontu handia izango da, ez daitezen interpretazio desberdinak edo zalantzak sortu...

Galderak idazteaz:

- Beharrezkoa da galdera hori jartzea?
- Erantzuteko behar adinako informazioa dute pertsona horiek?
- Formulazioa argia edo zalantzazkoa da?, erantzun partikular bat ematera bultzatzen du?
- Eraginik dute aurreko galderek erantzunetan?
- Galderak orden logiko batean egin dira?...

Bestalde, garrantzitsua da erantzun behar duenak galderak hurbileko zerbaiten gisara hartzea, berarentzat adierazgarriak izatea.

Aplikazioa:

Aplikatzeko unean garrantzitsua izango da erantzuteko behar diren argibide guztiak argi eta garbi azaltzea. Anonimatua bermatu beharko da une oro eta izango duen erabilera bakarra egiten den azterketa dela adieraziko da.

Galdeketa postaz egiten bada, gomendagarria da gure datuak eta frankeoa izango duen kartazal batekin bidaltzea, pertsonak galdetegia bete ondoren itzul dakigun errazteko.

Erantzunen kodifikazioa

Galdetegiak azterketa estatistiko bat behar du (nahiz eta irakurketa kualitatiboa ere izan), lortutako datuak zenbakietan bilakatu beharko baitira, pertsona horrek eman ditzakeen galderak kodifikatuz.

Zaindu egin beharko da emaitzen tratamendua, eta prozesua bera eta ebaluazioa objektiboak izan behar dute.

Abantailak

- Merkeagoa da.
- Errazagoa da prestatzea eta aplikatzea
- Homogeneoagoa da.
- Anonimoa denez bere baliagarritasun maila handitzen da.
- Erantzunak lasai eta patxadaz ematen dira.
- Pertsona kopuru handiago bati aplikatu daki.
- Erregistroa eta kodifikazioa errazten du...

7.2. Beharren identifikaziorako bestelako metodoak

Gizarte adierazleak

Oro har, estatistika ofizialetan biltzen dira, erraz lortzeko eta erkaketa normatiboak egiteko aukera ematen dute. Gehiago zentratzen dira arazoetan konponbideetan baino.

3 helburu betetzeko balio dute:

Helburu izango den populazioa deskribatzea

Batzuetan ez ditugu helburu izango den populazioaren daturik izango, baina bai entitate handiago batenak, udalerrria, probintzia... Kasu horietan, helburu izango den populaziorako gizarte adierazleen baloreak aplikatu ahal izango dira balioespen sintetikoaren bidez; hau da, ingurune txikietako talde demografiko nagusien multzoak eta talde demografiko zabalagoetakoak berdinak direla iriztea.

Gizarte esparruen azterketak egiteko ere erabili izan ohi da eta gizarte zerbitzuen programaketako xede izan daitezkeen hiri populazioak aurkitzeko aukera ematen dute. Gauza da gizarte adierazleen arteko 3 motei buruzko informazioa, zona desberdinetan jasotzea:

- Gizarte maila: gizarte statusaren adierazlea, lan tasaren maila, hezkuntza maila, adierazle sozioekonomikoak eta kulturalak.
- Famili statusa: familiaren osaketa, etxebizitza mota, lanean ari diren emakumezkoen %, guraso bakarreko familiak.
- Etniak: talde minoritarioen edo emigranteen proportzioa.

Adierazle horiek inguru desberdinen arteko desberdintasunak eta behar handiena duten zonak aurkitzen lagun dezakete.

Arrisku faktoreak aztertzea

Banakoaren mailan arazoak hobeto atzemateko edo zerbitzuen erabilerako lerro nagusiak agertzen dituzten gizarte adierazleak hautatzen dira.

Beharrak kontsentsu bidez identifikatzeko metodoak

1. INFORMATZAILE NAGUSIAK

Beren posizioa dela eta, behar komunitarioak ezagutzeko eta zerbitzuak erabiltzeko dituzten arazoak hobeto ezagutzen dituzten pertsonak emandako informazioan oinarritzen da.

Eman beharreko pausoak

- Helburuak zehaztea; informazio adierazgarriena eman dezaketen pertsonak hautatzeko (xede den gaiaren gaineko iritziak).
- Arazoak, beharrak, arrisku taldeak, eskuhartzeko aukerak... identifikatzen saia daiteke.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

- Informatzaile guztiek eman dezaketen informazioa erkatze aukera emango duen galdetegi bat osatzen da. Teknikarik erabiliena banako edo telefono bidezko elkarrizketa izan ohi da (laburra eta oso egituratua).
- Partehartzaileak hautatzea eta harremanetan jartzea: 10-15 pertsona hautatzea gomendatzen da, beti ere lurraldearen tamainaren arabera.
- Informazioaren bilketa: datuak aztertzen dira emaitzak laburbilduz eta taulatan jasoz. Elkarrizketa bakoitza laburbiltzen da gai nagusienak identifikatuz eta egindako oharra bilduz (lehentasuneko item-ak). Hala balegokio, informatzaileak bil ditzake emaitzak eztabaidatzeko.
- Amaierako txostena idaztea.

Abantailak

Teknika erraza eta kostu gutxikoa. Garrantzitsuena partehartzaileen hautaketa on bat egitea da. Honen bidez komunitatearen egungo beharren multzo bat agertzen da eta, bide batez, egoera hobetzeko estratergiarako gaiak ateratzeko aukera ematen du.

2. DELPHI TEKNIKA

Helburua pertsona batzuen (taldea) iritzia jakitea da, komunitatearen arazoei buruzko iritzia, baina ideia eta konponbideak aurkitzeko ere erabil daiteke. Posta bidezko galdetegiak erabiltzen dira eta galdetegi bakoitza aurreko galdetegian emandako erantzunei jarraiki osatzen da. Prozesua kontsentsu batetara iritsi edo informazioa adierazgarria denean amaitzen da.

Eman beharreko pausoak

- Azterketa gaia mugatzen da.
- Partehartzaileak eman dezaketen informazioaren, motibazio mailaren,... arabera hautatzen dira.
- Gonbidapen gutuna idaztea eta igortzea 1. galdetegiarekin batera (irekia).
- 1. galdetegiaren emaitzen azterketa. Item eta oharren zerrenda bat eman behar du. Zerrenda ahalik eta laburrena izan behar du, berrikusi eta kritika dadin. Azterketa taldea adostasunera iritsiz egiten da. Arazoa enuntziatuak, izenburuak biltzean eta esaldi ulergarriak egitean datza, 2. galdetegiaren edukia osatuko baitute. Beharrezkoa da item multzo bat jasoko duten kategoriatara, elkarrengandik bereiztuko dituenetara iristea.
- 2. galdetegia osatzea eta bidaltzea: parte hartzen duen pertsonari behar eta arazo bakoitzarekin ados dagoen ala ez adieraztea, eta horrela iritziez gero, sailkatzea eskatzen zaio. Era berean, garrantziaren arabera sailkatu behar ditu, lehen 10 item-ak (1. galdetegian emandako erantzunak).
- 2. galdetegiaren azterketa: bozketaren emaitzak jasotzen dira eta jasotako oharra laburbiltzen. Azterketa taldeak bere erabakia hartu behar du, inkestaren helburuei jarraiki lortu dituen erantzunen balioaren gainean.
- 3. galdetegia osatzea eta bidaltzea: Parte hartzen ari direnek beren erantzunak berrikusten dituzte eta, bozketa eta beste partaideek egindako oharren arabera, garrantziaren inguruko erabakia hartzen.
- 3. galdetegiaren azterketa.

- Amaierako txostena idaztea.

3. TALDE NOMINALAK

Arazoak eta beharrak identifikatzea eta garrantziaren arabera sailkatzea du xede. Lehentasunak finkatzeko, planak garatzeko eta programak ebaluatzeke ere erabil daiteke.

Ideiak sortzeko eta ebaluatzeke aukera ematen du, taldeko dinamikek berekin daramatzaten arazoak ekidinez. Informatzaile nagusiak, erabiltzaileak, hiritarrak eta zerbitzuak ematen dituzten pertsonak biltzen dira, 2-4 ordutan, arazoak identifikatu eta konponbideak proposa ditzaten.

Eman beharreko pausoak

- Arazoa dimentsionatu edo konponbideak ematera behartzen dituzten galderak egitea partehartzaileei.
- Partehartzaileak hautatzea planteatu diren galderak kontuan hartuz. Ikuspegi desberdinetako ordezkariak sartu behar dira, bai talde nagusian eta bai 6-9 pertsonatako azpitaldeetan ere eta, bide batez, azpitalde bakoitzeko koordinatzaile bat izendatu behar da.
- Partehartzaile bakoitzak idatziz erantzun behar dio 1. galderari, eztabaidarik gabe. 10-15 minutu izango ditu erantzuteke.
- Ideia guztiak jasotzen dira eta partehartzaile bakoitzak ideia bat azaltzen du bere txandan; eta ez da eztabaidarik izango.
- Ideia bakoitza gainontzekoei azaltzen zaie baina ez da kritikarik egin behar. Eginkizun honetan denbora osoaren %25a ematen da.
- Partehartzaile bakoitzak, banaka eta bakarrik, 5 ideia nagusi ordenatzen ditu. Puntuaketak jasotzen dira eta ideia bakoitza zenbatetan agertu den jasotzen.
- Ondoren labur eztabaidatzen da.
- Partehartzaile bakoitza gehien gustatzen zaizkion 5 ideiak ordenatzen ditu berriro eta azpitalde bakoitzeko puntuaketak biltzen dira.
- Prozesu berdina jarraitzen da gainontzeko galderetan.

4. BRAINWRITING

Animatzaileak hasierako ideiak idazten ditu txarteletan eta mahai gainean jartzen ditu; 6-8 pertsonako bilerak izaten dira.

Partehartzaile bakoitzari bere ideiak, isilean, idatz ditzan eskatzen zaio eta, ondoren, bere zerrenda mahaiaren gainean dagoen beste zerrenda batekin aldatuko du. Zerrenda honetan ideia berriak idatziko ditu. Eta horrela jarraituko da zerrenda guztiak amaitu artean.

Jarraian, Talde Nominalean eman diren pauso berdinak emango dira.

7.3. Baliabideen ebaluaketa

BALIABIDEEN INBENTARIOA

Oro har, zerbitzuak ardura duen eremu geografikoaren eta antolaketa markoaren arabera sailkatzen dira. Eskualde geografikoa oso zabala izango balitz, zatitzea gomendatzen da banaketa administratiboen mugak edo gizarte alorreko azterketak erabiliz.

Egokiena erakunde eta programa guztien azterketa bat egitea izango litzateke, beti ere komunitateak zerbitzuak emateko duen gaitasuna ebaluatu nahi bada. Kopurua oso handia izango balitz, ordea, laginketa bat jaso beharko litzateke.

Harremanak ezarri nahi direnean erakundeekin, aurrez aurreko edo telefono bidezko elkarriketak egingo dira; baina egin behar dizkiegun galderak aurretik jaso behar dituzte, nahi dugun informazio guztia biltzeko denbora izan dezaten.

Ardura jarri behar da zerbitzuen kategorien hautaketan eta definizioan, azterketa jakin horretarako, elkarrengandik bereizten direnak eta adierazgarriak izan behar baitute. Esaterako; gizarte zerbitzu orokorrak edo oinarrikoak, espezifikoak edo espezializatuak.

Zerbitzuak nork ematen eta zer zerbitzu ematen denari buruzko informazioaz gain, zerbitzu horiek jasotzen dituzten pertsonen kopuruari buruzko datuak jaso behar dira (zerbitzuen ahalmena). Zerbitzu berriak sartzeko beharra erabakitzeke, komenigarria da zerbitzuak erabiltzeko neurriak (ardura jarri den pertsonen kopurua) eta zerbitzuaren ahalmena (ardura jarri zitekeen pertsonen kopurua) lotzea.

Helburuak

- Xede izan daitekeen populazio batek dituen zerbitzuak deskribatzea.
- Zerbitzuen hutsune eta defizitak identifikatzea.
- Gutxi erabilitako zerbitzuak eta kosturik txikienean eman daitezkeen zerbitzu berriak atzematea.
- Dirulaguntzak emateko ardura duten erakundeek, martxan diren programak sartzeko laguntza ekonomikoak eman ditzaten ekiditea.
- Ez du beharrik adierazten, une jakin batean izan daitezkeen konponbideak deskribatzen ditu.
- Egungo egoera azaltzen du.

Eman beharreko pausoak

- Inbentarioa egiteko helburuen definizioa.
- Inbentarioko lurraldearen mugaketa, komunitatearen, aztertzen ari den populazioaren, ezarri beharreko zerbitzuaren hedaduraren,... arabera.
- Inbentarian sartu beharreko baliabide mota eta bakoitzari buruzko beharrezko informazioa definitzea.
- Ezarritako ezaugarriei erantzuten dieten baliabideen zerrenda eta harremanak izan nahi diren zentroen zerrenda egitea.
- Informazioa biltzea.
- Datuen azterketa.

Baliabideen inbentarioa egitea, fase garrantzitsu bat da planifikazio prozesuaren barne, baliabideen egokitzapen eta zerbitzuak lurralde edo kolektibitate baten beharrei egokitzea baita helburua. Hau problematika horren inguruko informazioa jasotzeko aukera ematen duen beharren azterketarako azkeneko tresna da.

ZERBITZUEN ERABILERARI BURUZKO AZTERKETA

Zerbitzuen/programen erabilerako kopuru garrantzitsuenak dira:

- Onarpen tasa: ardura jarri den pertsonen kopurua / xede den populazioko pertsona kopurua, onarpen irizpideak betetzen dituenak X 100.
- Ardura proportzioa: X talde baten ardura tasa / Y talde baten ardura tasa. Bi zerbitzuak erkatzeko edo populazio bateko bi azpitalderi emandako ardura erkatzeko balio du.
- Ardura jarri ez den pertsona proportzioa: ardura jarri den pertsonen kopurua – ardura jarri beharko litzatekeen pertsonen kopurua (beharra dute) / azkeneko zenbaki hau Kopurua positiboa bada, emandako ardura zerbitzuak espero zitekeena gainditzen du. Emaizta negatiboa bada; beharra izan eta laguntzarik jasotzen ez duten pertsonak daude.
Zerbitzu baten aurreikusitako erabilera eta ardura jarri den pertsonen kopuru errealak lotzen ditu.

Ondoren informazioa jaso beharko da:

- Erabiltzaileen datu demografikoak.
- Ematen diren zerbitzuak: hobaridunen kategoria desberdinak zenbatzeko eta erabilera tasak erkatzeko aukera ematen du.
- Igorpena: zerbitzu baten erabilera zailtzen edo errazten dituzten faktoreak atzematen laguntzen du.

Behin informazioa jaso ondoren azterketa 3 fasetan egingo da:

- Azpitalde bakoitzaren % kalkulatzeari, populazio osoaren aldean.
- Azpitalde bakoitzaren erabilera tasak kalkulatzeari.
- Azpitalde bakoitzaren aurreikusitako erabilera tasak kalkulatzeari, lehenago aipatu den metodoen bat erabiliz.
- Eskaeran zentratzen da.